

Gradu Amaierako Lana

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

2022/2023 Ikasturtea

**Genero sozializazioaren ondoezak: feminismoa gizarte eta
hezkuntza arloko esku hartzearen ardatz gisa**

Egilea: Eider Herreros Perea

Tutorea: Maria Dosil Santamaria

Leioan, 2023ko ekainaren 6an

Genero sozializazioaren ondorezak: feminismoa gizarte eta hezkuntza arloko esku hartzearen ardatz gisa

Eider Herreros Perea

UPV/EHU

Genero sozializazioaren ondorioak nabarmenak diren arren, kausa anitzeko arazo isolatu moduan hartzen dira, generoa kausa bakarra izan daitekeenaren ideia baztertuz. Ikerketaren helburua, sozializazioa ulertzea eta emakumeetan duen eragina neurtzea da. Horretarako, 18 eta 50 urte bitarteko 235 pertsona parte hartu dute. Lortutako emaitzetan, aipagarria da, emakumeak harreman sexuafektiboetan itunduta dauden estereotipoengandik baldintzatuta jokatzeko dutela; jarrera sexistak gehiago onartzen dituztela; autokontzeptu fisiko baxuagoa dutela eta, emakumea subjektu pribatu gisa identifikatzen dela. Lagin honetan beraz, sozializazioaren ondorioak nabarmenak dira. Ikerketa egiteko, eskala berria sortu da, jada balidatutako eskaletan oinarrituz. Hurrengo ikerketetara begira, analisiarekin jarraitzea nahitaezkoa da, Gizarte Hezkuntzaren aldetik ekin ahal izateko. Horretarako, batik bat, eskala balidatu beharko da.

Genero sozializazioa, estereotipoak, rolak, sexismo onbera, feminismoa

Los efectos de la socialización de género son evidentes, pero se consideran como problemas aislados multicausales, desechando la idea de que el género pueda ser la única causa. El objetivo de la investigación es comprender la socialización y analizar lo que provoca en las mujeres. Para ello, han participado 235 personas de entre 18 y 50 años. En los resultados obtenidos se aprecia que las mujeres actúan condicionadas por estereotipos en las relaciones sexoafectivas; que aceptan más las actitudes sexistas; que tienen un menor autoconcepto físico y que la mujer se identifica como un sujeto privado. En conclusión, en esta muestra, los efectos de la socialización son evidentes. Para la realización del estudio se ha creado una escala con escalas validadas. De cara a próximas investigaciones, es importante continuar con el análisis del fenómeno, para poder actuar desde la Educación Social; para eso, se deberá validar la escala.

Socialización de género, estereotipos, roles, sexismo benevolente, feminismo

The effects of gender socialization are evident, but they are considered as multi-causal isolated problems, rejecting the idea that gender may be the only cause. The objective of the research is to understand socialization and analyze what it causes in women. For this, 235 people between the ages of 18 and 50 have participated. In the results obtained, it stands out that women act conditioned by social stereotypes in sexual-affective relationships; that they accept sexist attitudes more; that they have a lower physical self-concept and that the woman identifies herself as a private subject. Indeed, it can be said that in this sample, the effects of socialization are evident. To carry out the study, a scale has been created from validated scales. Facing future investigations, it is essential to continue with the analysis of the phenomenon, in order to act from Social Education; for this, the scale must be validated.

Gender socialization, stereotypes, roles, benevolent sexism, feminism

Aurkibidea

1. SARRERA	3
2. ESPARRU TEORIKO ETA KONTZEPTUALA	4
2.1. Genero sozializaziora hurbiltzeko terminologia	4
2.2. Genero sozializazioaren kontzeptualizazio orokorra	5
2.3. Jendartearen baloreen antolaketa sinbolikoa	6
2.3.1. Genero-rolen esleipen ontologikoa kulturaren oinarrituz	6
2.3.2. Genero estereotipoak kulturaren oinarrituz	8
2.4. Indarkeria motak: Sexismo ezberdinak	8
2.5. Genero sozializazioaren ondorioak	11
2.6. Feminismoa: Genero sozializazioaren aurrean erantzuna	12
3. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK	14
4. METODOLOGIA	14
4.1. Ikerketaren diseinua	14
4.2. Partaideak	14
4.3. Tresnak	15
4.4. Prozedura	18
4.5. Datuen analisia	18
5. EMAITZAK	19
5.1. Genero perspektiba eta erlazionatutako aldagaiak	19
5.2. Emakumeen jarrera harreman sexuafektiboetan	19
5.3. Emakumeak eta jarrera sexisten onarmena	20
5.4. Emakumeen autokontzeptua eta erlazionatutako faktoreak	21
5.5. Sexismo eta autokontzeptuaren arteko korrelazioa	22
5.6. Feminismoaren garrantzia emakumeetan	22
6. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK	24
7. LIMITAZIOAK ETA ETORKIZUNEN IKERKETAK	25
8. ETIKA PROFESIONALA ETA DATUEN BABESA	26
1. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	26
9. ERANSKINAK	32

1. SARRERA

Sexu biologikoak, jendartean¹, emakumeak eta gizonak nola hezi behar diren zehazten du eta hori, genero sozializazioaren bitartez gertatzen da. Egun, sozializazio hori indarkeria edo biolentzia dela medio mantentzen da zeina bortitza edo onberazkoa edota zuzena edo estrukturala izan daitekeen, autore batzuen arabera. Horren oinarrian, hezkuntza dago, zeina formal eta ez-formalaren bitartez, jendartea den modukoa izatea ahalbidetuko duen, estereotipo edota rol zehatzak barneratzea ahalbidetuz.

Horrek, identitatean, autokontzeptu mailan, etab. eragin zuzena izango du. Egoera horretaz jabetzen hasia da jendartea, dena den, gizonen kasuan, zaila izan daiteke egoera pribilegiotsu horretaz jabetzea eta horrekin bukatu nahi izatea. Egoera berdina ematen da emakumeetan, ez baita erraza hezkuntzaren bitartez barneratutako baloreak baztertzea, itundutako bidea baino ez baitira jarraitzen ari.

Egia da fenomeno honen inguruko interesa handitu dela; dena den, honek eragiten dituen ondorioak, ezkutuan egoten jarraitzen dute, hauek modu isolatu moduan hartzen baitira, eta ez genero sozializazioaren ondoriotzat.

Horren aurrean, Gizarte Hezkuntzaren aldetik, gai honen inguruko lanketa egitea beharrezkoa izango da, arazo multifaktoriala delakoan. Gizarte Hezkuntzan komunitatean bizi diren pertsonen harremanak aztertu eta horietan sor daitezkeen arazoak identifikatzea beharrezkoa da. Genero sozializazioak gizakien harremantzeko modua baldintzatzen duenez, hura ezagutzea nahitaezkoa da. Harira, hezitzaile moduan, eskuragai dauden tresnak ezagutu behar dira, zeinak feminismoaren eskutik etor daitezkeen.

Hurrengo orrialdeetan zehar, genero sozializazioaren eta horrek eragindako ondorioen inguruko lanketa egin da. Horretarako, terminologiari hurbilpena egin eta gero, arlo teorikoa irakurtzeko aukera egongo da. Ondoren, 18 eta 50 urte bitarteko hartzaileak oinarri hartuko duen ikerketa bat egin da. Bukatzeko, emaitzak interpretatu eta horien araberrako ondorioak atera dira, zeinak etorkizuneko ikerketetan erabilgarriak izan daitezkeen. Kasu honetan, jada sortutako eta balidatutako hainbat eskala hartu eta berria sortzeko beharra agerian geratu da, ez baita aurkitu genero sozializazioaren aspektu ezberdinak neurtzen duen eskala balidaturik. *Etorkizuneko ikerketetara begira, fenomenoak ulertu bidean, estrategia metodologiko ezberdinak erabiltzea beharrezkoa izango da, hala nola, elkarriketak. Gainera, erabilia izan den eskala balidatzea ere, garrantzitsua izango da. Horrela, Gizarte Hezkuntzaren aldetik, arazoa ulertu eta erantzuna, horren ezagutzatik eman ahal izango da.*

¹ “Jendarte” terminoa erabiltzearen alde egin da, “gizarte” baino inklusiboagoa izan daitekeelakoan.

2. ESPARRU TEORIKO ETA KONTZEPTUALA

2.1. Genero sozializazioa hurbiltzeko terminologia

Genero sozializazioaren inguruko informazioa barneratzeko, hainbat kontzeptu argi izatea beharrezkoa da, ondoren azalduko dena ulertzeko helburuarekin.

- Sexua: Egoera organikoari egingo dio erreferentzia; hura, femeninoa edo maskulinoa izan daiteke eta ez dio soilik gizakiei erreferentzia egingo, baita landare edo animaliei ere, Real Academia Española (RAE)-ren arabera (2021a). Euskaltzaindiak (2022), ezaugarri fisikoen multzoari egiten diola erreferentzia ziurtatzen du.
- Generoa: Real Academia Española-k (2021b) definitzen duen moduan, indibiduok gizon edo emakume diren zehaztuko du, ikuspegi soziokulturaletik ulertuta, arlo biologikotik haratago. Harira, Bourdieu-ek (2000) ziurtatzen duenez, ez da indibidualki aztertzen den auzia, baizik eta sozialki hitzartuta dagoen kontzeptu bat.
- Identitatea edo Nortasuna: Jasotako sozializazioaren arabera identitatea edo nortasuna modu batean edo bestean garatuko da (Walker eta Barton, 1983). Ondorioz, testuinguruak eragin zuzena izango du (Ferrol-Pérez eta Bosch-Fiol, 2013), baita generoak ere; horren arabera, agente sozializatzaileak modu batean edo bestean ekingo baitute (Spence, 1999).
- Autokontzeptua: Norberak bere burua identifikatzeko duen modua izango da (López-Zafra eta López-Sáez, 2001); neurtzeko, hainbat auzi hartu behar dira kontuan: eskola, familia, arlo fisikoa, soziala eta emozionala. Autore batzuen arabera, identitatearekin harremanduta dago eta ondorioz, generoak (Amezcueta eta Pichardo, 2000) eta testuinguruak (Ferrol-Pérez eta Bosch-Fiol, 2013) autokontzeptuan eragingo du.
- Rolak: Jokatzeko modua edo jarrera baldintzatuko dute. Hauek gizon eta emakumeei esleitzen zaizkien baloreen arabekoak izango dira. Esaterako, emakumeei zaintza eta gizonei lan produktiboa esleitu eta horren arabera jokatu dute haien bizitzan. Jokabide horiek aztertzean, onartzean eta informazio horren arabera ekitean, rola barneratuta dituztela esan daiteke (Herrera-Santi, 2000).
- Estereotipoak: Inposatutako ideia sinpleak izango dira, zeinak oso barneratuta egongo diren. Horiek jokatzeko moduan eragin zuzena izango dute (Ruiz-Espinar, 2009).

2.2. Genero sozializazioaren kontzeptualizazio orokorra

Genero sozializazioa arau eta printzipio ezberdinen bitartez, jokabide desberdinak edota ideia eta baloreak barneratzean datza. Emakume edo gizon izatearekin batera, jokabide horiek mota batekoak edo bestelakoak izango dira (Ruiz-Espinar, 2009). Horiek betetzen ez dutenek, jendartetik at bizi direla kontsideratzen da (Ibarra, 1995). Hori dela eta, Meza-ren (2001) arabera, genero sozializazioa arazo multifaktorial moduan ulertu beharra dago, bizitzaren aspektu guztietan eragina izango baitu.

Hanish eta Fabes-en (2014) esanetan, sozializazioa 3 urteetatik aurrera finkatzen da, nahiz eta jaio baino lehenetik, estimulu ezberdinak jasotzen hasiko diren. Dena den, 3 urteetatik aurrera, momentu horretara arte jasotako jokabideak onartu eta barneratzen hasiko dira. Barneratze prozesu horretan, estimulu ugari egon daitezke: koloreen edo (arrosa, urdina) iragarkien bitartez (Vences, 2009) edota, egun modan jarri den Baby-Shower-arekin batera (Zúñiga-Bustamante, 2021). Horrek gizonen eta emakumeen sozializazio esperientzia desberdinak izatea eragiten du, esperientzia horiei eduki bat emanez sexuaren kategoria psikosozialari, arlo biofisiologikotik haratago (Linn eta Petersen, 1985). Harira, De Beauvoir-ek (1949) aipatu zuen moduan, emakumeak ez dira jaiotzen, baizik eta sortzen dira. Ideia horri ere, hainbat autoreek eusten diote, kultura eta hezkuntzaren bidez bihurtzen direla haurrak gizon edo emakume ziurtatuz (Colás-Bravo eta Villaciervos-Moreno, 2007; Nuñez *et al.*, 2008; Hanish eta Fabes, 2014; Cobo, 2012a).

Durkheim-ek (1976) zehazten zuen moduan, gazteen hezkuntza formala helduen eskuetan geratzen da. Horrek, denbora guztian atzeratuak dauden baloreak inposatzea eragiten du. Autore honen aburuz, horren arrazoia jendartean oinarritzko homogenitatea lortzea da, oreka mantendu dadin. Alabaina, badira eragile gehiago oreka hori mantentzera bideratuta daudenak, hala nola familia edo komunikabideak, zeinak bidea errazten duten, imitazio prozesuak direla eta.

Harira, García-Torres-en (2012) aburuz, prozesu horretan, Patriarkatuak² garrantzia hartzen du. Hura instituzio trans-historikoa da. Butler-ek (2009) Heteropatriarkatua mantendu bidean, arau femeninoak generoaren ugalketarekin eta botere-negoiazioarekin harremanak egongo direla defendatzen du. Horrek, produkzioa eta erabilgarritasuna bilatzera bideratzen ditu pertsonak. Ondorioz, kapitala erdigunean jartzea eragiten du, pertsonen ongizana bermatu baino, izan ere, garrantzitsuagotzat hartzen da sistemaren

² Autorearen arabera, "Patriarkatu" edo "Heteropatriarkatu" terminoa erabiltzen da. Lehenengoak ez du heterosexual izatea inposizio moduan hartzen. Bigarrena aldiz, Heterosexual eta Patriarkatu hitzen elkarketa bat da, zeina Monique Wittig-ren eskutik etorri zen, ziurtatu baitzuen harreman sexuafektiboak eta sistema politikoak guztiz bateratuta zeudela, pertsonak heterosexual izatea baldintzatuz (Poblete-Hernandez, 2014).

funtzionamendu egokia jendartearen ongizana baino. Esan daiteke beraz, genero sozializazioa kapitalismoaren eta neoliberalismoaren menpe ematen dela; horrek baina, ez du esan nahi, beste sistema batzuetan, balio antzekoak transmitituko ez liratekeenik (Cobo, 1995; Widgor, 2018).

Beraz, hezkuntza formal eta ez-formalaren bitartez, maskulinitatearen eta feminitatearen edukiei buruzko informazioa luzatzen da (Ruiz-Espinar, 2009; Zaro, 1999). Horretarako, mezu inplizituak eta hiztegia oinarri moduan hartzen dira. Prozesu honen bitartez, jendarteak emakume eta gizonak sortu egiten ditu eta horren arabera, bizi-ohiturak garatzen dira (Cobo, 2012b). Horrela, jendartea genero sozializazioa mantentzera bideratuta egotea lortuko da (Galarza-Fernandez *et al.*, 2016).

2.3. Jendartearen baloreen antolaketa sinbolikoa

Jendartearen funtzionamendua ulertu ahal izateko, Galarza-Fernandez-en *et al.* (2016) arabera, hura bi zatitan banatzen dela ulertzea beharrezkoa da. Alde batetik, nukleoa edo erdigunea dago eta bestetik, horren gaineko geruza. Baloreak nukleoan aurki daitezke, modu sinbolikoan eta horren gainean, gainontzeko bizipen, joera, ohiturak... ezarri egiten dira. Harira, nukleoko baloreak, maiz, kanporatzeko beharra dago, horien inguruan eztabaidatu ahal izateko. Horrela, jendartea aldatzeko eskumena aurkezten da. Nukleo horren baitan dauden ideiak, denbora guztian aldatu egiten dira, jendartea aldatuz doalarik. Dena den, aldaketak oso xumeak dira, beraz, egungo baloreak, emakumeei dagokienean, eta iraganean zeudenak, parekatu daitezke. Eztabaidaren sakontasun ezak sistemaren erabilgarritasuna zalantzan ez jartzea ahalbidetzen du. Ondorioz, De Miguel-ren (2003) arabera, jendarteak orokorki, sistemaren egitura onartu eta positibotzat hartzen du, nukleoko edukia babestuz.

Horrekin lotuta, rolak eta estereotipoak daude. Autore batzuen arabera, rolak nukleoan egongo dira eta ondorioz, estereotipoak, gaineko geruzan. Beraz, rolak egunerokoan jarraitzearekin batera, estereotipoak sortuko dira (Velandia-Morales eta Rincón, 2014). Beste baten aburuz aldiz, estereotipoak nukleoan egongo dira eta gaineko geruzan aldiz, rolak. Hau da, estereotipoek rolen esleipen ontologikoa eraikitzea ahalbidetzen dutela defendatzen du (Bourdieu, 2000). Egoera dena delarik ere, bada presio handia, jendartearen aldetik, emakumeak feminitatearen baitan kokatzeko (López-Zafra eta López-Sáez, 2001).

2.3.1. Genero-rolen esleipen ontologikoa kulturen oinarrituz

Jendartearen antolaketa ulertzen jarraitu bidean, norbanakoari esleitutako rolak ulertzeari ekingo zaio, ulertuta, jokabide inposatuak izango direla. Jada aztertu den moduan

genero sozializazioak, sexu bakoitzerako esleipen ontologiko bati eusten dio, rol maskulino eta femeninoari erantzunez. Alde batetik, espazio pribatu eta etxekoia -emakumeak- dago eta bestetik, alderdi publiko eta politikoa -gizonak-. Bi hauek jendartea den modukoa izatea ahalbidetzen du Cobo-ren (2012b) aburuz. Izan ere, egun, harreman gehienak heterosexuak izaten jarraitzen dute -inposizio moduan ulertuta- eta ondorioz, ontologia hori halakotu egiten da harreman sexuafektiboetan (Mateo-Gallego, 2011).

Alde batetik, gizonezkoek duten esleipenarekin batera, jendartea eraldatzeko ekimen aktibo moduan ikusten dute haien burua. Bestetik, emakumeei dagokionean, amodioa eta zaintza oinarritzat moduan hartu eta bizitza osoa horretara mugatu ohi dute. Harira, sexualitate eta pasibitatea oinarri hartuko dute, familia lehentasun moduan identifikatuz. Ontologia maskulinoak, aktibotasuna, norberaren meneratzea eta sentimenduen kontrolarekin bat egiten du (Cobo, 2012b). Gainera, gizonak mundu materialean eta emakumeak sentimenduen munduan murgilduta daudelaren ideia luzatzen da (Suberviola-Ovejas, 2018). Beraz, emakumeen sentiberatasunaren aurrean, gizonak arrazoia erabiltzeko heziak dira. Horrek, emakumeak ahul moduan eta gizonak ausart eta indartsu moduan hartzea eragiten du (Arnosó *et al.*, 2017). Horrekin batera, ikerketa batek hala baieztatu duen moduan, emakumeak gainontzeko pertsonen emozioak hobeto ulertzeko gaitasuna izaten dute, enpatikoagoak direla ziurtatuz (Tapia eta Marsh, 2006). Beraz, ontologiak harremanetan zein emozio edukitzen diren baldintzatzen du; ondorioz, ez da modu berdinean sentituko emakume moduan ala gizon moduan hezia izan dena (Suberviola-Ovejas, 2020).

Bestalde, harreman heterosexual batean, hau izango da esperoko dena Suberviola-Ovejas-en aburuz (2020): Gizonezkoen kasuan, rol maskulino tradizionala betetzea espero da. Horrekin batera, sexu-jardueraren itxura ematea; erabakiak hartzea; jarduteko modu egokia izatea; haren interesei lehentasuna ematea, etab. garrantzitsua izango da. Bestetik, emakumeei dagokionean, gizona aldatzeko aukera duela sentituko du; harremanaren barruan arazoak egonez gero, harengatik gertatzen direla pentsatuko du; zorte handia duelaren ideia izango du; gizonak izan ditzakeen jeloskortasunarekin lotutako sentimenduak onartuko ditu, etab. Horrez gain, Lorente-ren (2001) aburuz; gizonak emandako tratu txarrak justifikatuko ditu. Dena den, kontuan hartu behar da pertsona guztiak ezberdinak direla, beraz, rola eta horiek erangindako jokabideak ezberdinak izan daitezke (Rodríguez-Martín *et al.*, 2006).

2.3.2. Genero estereotipoak kulturen oinarrituz

Estereotipoak, ideia sinpleak izango dira, zeinak norbanakoaren jarduteko moduan integratuta egongo diren (Ruiz-Espinar, 2009). Esaterako: emakumeak irakurmenaren eta gizonak matematikaren arloa jarraitu behar dutelaren ideia dago, sexuaren arabera gaitasun inposatuetan oinarrituz (Del Rio *et al.*, 2016).

Harira, Fisas-en (1998) esanetan, emakumeak femeninoak eta gizonak maskulinoak bihurtuko dira. Horren bidean, emakumea ezta, samurra, maltzurra... izango da; gainera, gai unibertsalez, sentimentalez, intuitiboez eta erraiez arduratzeko gai ez denaren ideia babesten da. Freixas-Farré-k (2001) edertasuna, amodio naturala, amatasuna, zaintzailatasuna eta ongizatearen erantzulea izaterakin batera lotzen dela ziurtatzen du. Bestetik, autore honen arabera, gizonen dagokionean, ezagutza, gaitasunak... izan behar dituztela defendatzen da, sentigaitza eta gogorra izatearekin batera.

2.4. Indarkeria motak: Sexismo ezberdinak

Antolaketa sinboliko horrek, emakumeek pairatzen duten zapalkuntza sostengatzea ahalbidetzen du. Alabaina, mantenerako, biolentziak garrantzia hartuko du (Béjar, 2009). Autorearen arabera, modu ezberdinak daude biolentzia hori aurrera eramateko. Lehenik, Glick eta Fiske-ren (1996) aburuz, bortitza edo onberazkoa³ izan daiteke. Bortitza begi-bistaz identifikatzeko aukera egongo da, alabaina, onberazkoa identifikatzea zailagoa izango da.

Sexismo onbera ulertu bidean, maitasun erromantikoaren ideia nabarmendu beharra dago. Ortiz-Sanchez-ren (1997) arabera, ideia hau emakumeekin harreman zuzenagoa izango du. Emakumeek biolentzia erronka moduan hartu eta horri aurre egiteko auzi moduan hartuko dute, hura justifikatuz eta harremanarekin jarraitzearen erantzule bihurtuz (Gonzalez eta Santana, 2002). Jendartea, onespenean eta erabakitze askatasunean oinarritu ohi da. Umeak txikiak diren unetik, gizon zein emakumeak berdintasunean hezi eta bizi behar direlaren ideia transmititzen da. Horregatik, gaur egun, pertsona oro feminista moduan hartzen du bere burua, gizonen haiek amak, ikaskideak... pareko hartuz. Dena den, emakume zein gizonak “egia bikoitza”-n hezi egiten dira, Averroes Filosofoak⁴ ala izendatu zuelarik. Gizonen lehen “egia” haien burua feminista moduan hartzea bada ere, bigarren ideia emakumeak haiek zoriontsu izateko sortuak izan direla da (De Miguel, 2012). “Egi bikoitza” horretaz gain, jendartean, “moral bikoitza” ere nabarmena da. Corazón-en et al. (2008)

³ Sexismo onbera (gaztelaraz “benebolente”) Glick eta Fiske-ren (1996) aburuz, bortitzaren (“hostil”) gehigarria da. Ez da begi-bistaz identifikatuko, baina emakumeak bigarren maila batean mantentzea ahalbidetuko du.

⁴ Averroes filosofoak lehen aldiz, egi bikoitzaren kontzeptua babestu zuen. Alde batetik, arrazoien egi eta bestetik, fedearena. Haiek kontrajarriak izango dira, nahiz eta bateragarriak izan (Maiza, 1998).

arabera, teoria bati babesza emango zaio, errealitatean beste modu batean ekinez. Hau da, gizonek esaterako, feminismoaren aldeko joera dutela defendatu dezakete, jokabide matxistak izatearekin batera. Hau da, publikoki jendarteak onartutako etikaren alde egingo dute baina pribatuki, kontrako joera hartuko dute (Corazón *et al.*, 2008). Horrek, sexismo onbera egotea eragingo du eta askotan, ikusezina izango da (Glick eta Fiske, 1996).

Horrek, emakumeak gazteak direnetik sexismo mota hau onartzea eragingo du, indarkeria ikusezina izan daitekeelakoan (Arteaga-Millan eta Diaz-Sánchez, 2021) eta amodioaren inguruko ikuspegi kritikoa garatuta izango ez dutelakoan (Lairla eta Sánchez, 2019). Dena den, Oliver eta Valls-en (2004) ikerketa baten arabera, adinak berdin du, emakumeen kontrako biolentzia testuinguru guztietan ematen baita. Horren kausa aztertu nahian, Nazio Batuen *Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiei buruzko azterketa sakona* [Estudio a fondo sobre todas las formas de violencia contra la mujer] informea (2006) aztertu eta horren arabera, ez dago arrazoï nagusi esanguratsurik. Horren aurrean baina, Ferrol-Pérez-ek et al. (2008) eta García-Torres-ek (2012) sistema eta aipatutako jendartearen antolaketa mantentzeko eta ondorioz, gizonezkoek haien pribilegioak ziurtatzeko ematen dela baieztatzen dute, emakumeak subordinatuta egotea ahalbidetuz.

Bigarrenik, Galtung-en (1990) arabera, indarkeria zuzena edo estrukturala izan daiteke. Zuzena pertsonen artekoa izango da eta estrukturala aldiz, instituzioek pertsonengan ezartzen dutena.

Zuzeneko indarkeriari dagokionean, *Osasunaren Munduko Erakundea*-k [Organización Mundial de la Salud] (OMS) (2002) munduko leku ezberdinetan aurrera eramandako 42 ikerketa jaso eta horietan emakumeen %10 eta %69 artean biolentzia fisikoa jasan izan dutela landu zen. Bestetik, indarkeria psikologikoa ere nabarmena dela aztertu zuten. Horren islari, biolentzia fisikoa pairatu duten emakumeen %80a, psikologikoa ere pairatu dutelaren datua dago (Blázquez-Alonso *et al.*, 2012). Harira, *Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtza*-k [United Nations Children's Fund] (UNICEF) beste 23 ikerketa aztertu zituen, *Inocenti Ikerketa Zentroa*-ren [Innocenti Research Center] (Khan *et al.*, 2000) eskutik. Parte-hartzaile emakumezkoen %20 eta %50 artean indarkeria zuzena jasan izan duela agerian geratu zen.

Biolentzia estrukturalarekin jarraituz, ulertzeko, Bourdieu-ren (2000) arabera, estruktura materialak aztertu beharko dira (harreman ekonomikoak, politikoak, kulturalak...), hauen bitartez garatzen baita indarkeria mota hau. Horrela, jokabide patrioak inposatzen dira, zeinak emakumeei gehiago eragiten dieten. Harira, biolentzia mota honetan, kapitalismoan

zentratzeak garrantzia hartuko du. Modu koaktibo batean, hierarkikoki emakumeak maila baxuago batean egongo dira, baliabide materialak eskuratzeko gaitasuna ukatuko baitzaie. Genero-arauek espazioen banaketan eragiten dute; bereizten diren espazio publikoa eta pribatua, eta bereizketa hori nola gauzatzen den sexu-politiken zerbitzura dago; nor egongo den kriminalizatuta itxura publikoaren arabera zehaztuz (Butler, 2009). Gainera, egoera langile klaseko emakumea izanez gero, gehiago kaltetzen da (Galarza-Fernandez *et al.*, 2016). Hobeto ulertu bidean, indarkeria estrukturalaren adibide moduan emakume eta gizonen solbentzia ekonomikoa eta langabezia tasa azter daiteke, zeina espazio publikoaren banaketarekin harreman du daitekeen: Emakumeetan langabezia tasa gizonetan baino altuagoa da (Cebrián eta Moreno, 2008). Horren islari, *Estatistikako Instituto Nazionale*-ren [Instituto Nacional de Estadística] (INE) esanetan, 2021. urtean emakume aktiboen %16.7a langabezia zegoen; gizonei dagokionean aldiz, %13.1a (INE, 2021a). Horrek, solbentzia ekonomikoan eragina du. Lansariei dagokionez, emakumeek lanaldi totalen 16 euro lortzen bazituzten, gizonek, 17. Partzalean aldiz, emakumeek 11.1 euro eta gizonek 13.1 euro jasotzen zituzten (INE, 2019).

Honekin batera, biolentzia sinbolikoa ulertzea ere, beharrezkoa da, zeina estrukturalaren baitan egongo den, Fernandez-Herrería (1995) eta Galtung-en (2016) aburuz. Bourdieu-ren (2000) arabera, indarkeria sinbolikoa sistemaren egitura mantentzeko biolentziarik garrantzitsuena da. Autore honen aburuz, biolentzia hau ere, ikusezina da eta horrek arriskutsua izatea eragiten du. Pentsamendu, estereotipoen... bitartez transmititu egiten da eta biktimak horiek sinistu eta horien arabera jokatzera pasatzen dira. Beraz, jendartearen estruktura funtzionamendu egokia lortzeko sortua dago.

Indarkeriak eragiten duen emakumeen egoerari buelta emateko asmoz, bada diskurtso ahalduntzailea jendartean (De Miguel, 2012). Honen baitan, bakoitzak nahi duena lor dezakeela defendatu egiten da. Alabaina, autore honen aburuz, diskurtso hori neoliberal moduan ulertzea beharrezkoa da. Pertsona moduan, bakoitzak muga ezberdinak izango ditu, ondorioz, ezingo du gauza oro lortu. Hain modu positiboan pentsatzea neoliberal da eta emaitzak uste zirenak bezain onak ez direnean, arazoak ekar diezaioke pertsonari. Hori dela eta, diskurtsoa aldatzea eta norberak bere mugak ezagutzea izango litzateke bidea, beti ere jakinda, jendartea kapitalista eta lehiakorra dela (Puleo, 2005).

2.5. Genero sozializazioaren ondorioak

Behin egoera guztia ulertuta, nabarmena da genero sozializazioak ondorioak izango dituela indibiduoetan, jakinda gainera, estereotipo, rol edota baloreak mantentzeko indarkeria beharrezkoa dela. Horrek, emakumeen autokontzeptuan eragin dezake (Díaz-Aguado, 2003).

Alde batetik, kontuan hartuta rol eta estereotipoen esleipen ontologikoa, emakumeek eta gizonek garatuko duten identitatea ezberdina izango da eta testuinguruarekin bat datozen balioekin identifikatzeak garrantzia hartuko du (Spence, 1999; Esnaola, 2006; Font, 2002), emakume zein gizonen balorazio sozial positiboa, jendartearen balioekin bat egitearekin batera lortuko baita; hau da, feminitatea emakume bati egokitzen bazaio, egokitzen hartuko da, baina gizon bati egokitzeotan, negatibotzat; horrek, autokontzeptuan eragingo du (Lopez-Zafra eta Lopez-Saez, 2001).

Autokontzeptua eraikitzerakoan, De Miguel-ren (2012) aburuz, emakumeei esleitzen hasi zaizkien balioak liberalizatzailetzat hartzen hasiak dira jendartearen aldetik. Alde batetik, autokontzeptu fisikoan zentratuz, gorputzaren liberalizazioa dago. Balio garrantzitsuenetarikoen artean, emakumeak gorputzaren inguruan erabaki ahal izatea aurki daiteke, horrek, gorputza saltzea ahalbidetuz. Hori pentsaezina da, alde neoliberalistatik aztertzen ez bada, behintzat (De Miguel, 2012). Izan ere, gorputza eta pertsonaren arteko bereizketa egitearekin batera, gorputza merkantilizatzeko aukera ematen da. Horrela, emakume pobreak saldu eta gizon aberatsek erosteko aukera dute (Medina-Bravo, 2021; Rostagnol, 2018). Merkantilizazio horren arrazoia, gizonezkoei kultura honek eskainitako pribilegioekin batera eman da, zeinak arlo pribatu eta publikoan ematen diren, baina modu ezberdinean (Rodríguez-Martín *et al.*, 2006).

Horrek, emakumeen autokontzeptuan eragin zuzena izango du, izan ere, nahiz eta liberalizatzaile moduan ulertu, errealitatean emakumeak haien gorputza saltzen ari dira; horrek, autokontzeptu fisiko baxua izatea eragingo du, gizonek aldiz, altuagoa dutelarik (Alcaide-Risoto, 2009). Bestetik, autokontzeptu emozionala eta soziala ere landu beharra dago. Autore honek egindako ikerketa baten arabera, emakume gehiago daude batz besteko autokontzeptutik beherago kokatzen direnak; gizonak aldiz, kontrako joera hartzen dute. Horrek, antsietatea, depresioa, etab. suposa dezake emakumeetan (Amezcueta eta Pichardo, 2000). Harira, autokontzeptu globalean, gizonak dira autokontzeptu maila altuagoa dutenak (Amezcueta eta Pichardo, 2000; Bailey *et al.*, 1992; Bolognini *et al.*, 1996; Cairns *et al.*, 1990; Esnaola, 2004; Gabelko, 1997; Goñi *et al.*, 2004; Miller, 1979; Pastor *et al.*, 2003). Esan daiteke beraz, genero sozializazioak, aurretik aipatu moduan, identitatean (Spence, 1999;

Esnaola, 2006; Font, 2002) eta ondorioz, autokontzeptuan eragin zuzena izango duela (Lopez-Zafra eta Lopez-Saez, 2001). Egoera dena delarik, adinak autokontzeptuan eragin zuzena izango du (Behar eta Forns, 1984; García eta Peralbo, 2001; Lamborn eta Steinberg, 1993; Goñi-Palacios *et al.*, 2012): geroz eta adinez helduagoa izan, orduan eta autokontzeptu altuagoa izango dute. Dena den, Esnaola-k (2008) ez du uste adinarekin harremanduta egongo denik, baizik eta emakumeek nerabezaro eta gaztaroan pairatu behar duten gorputzarekiko presioarengatik, zeina askotan, bizitza osoan zehar mantentzen den.

2.6. Feminismoa: Genero sozializazioaren aurrean erantzuna

Aipatutako guzti horren aurrean, balore aldaketa egiteko bidea egiten hasia dela esan beharra dago (Barón-Cohen, 2005), nahiz eta esan bezala, oso prozesu motela den (Galarza-Fernandez *et al.*, 2016), jendartearen funtzionamendu osoa aldatu behar delako. Bidea egiteko, feminismoaren beharra nahitaezkoa da zeina interseksionala izan behar duen, biolentzia emakume guztietan eten dadin (de Miguel, 2003; Almendra, 2015). Millett-en (1995) arabera, mugimendu honek orden soziala eta kode kulturalari aurre egiten dio, nahiz hura oso errotuta egon, sistema kapitalistaren babesa dutelarik. Horren aurrean, egungo erronka genero ikuspegitik jendartearen emakumeek bizi dituzten egoera aztertzea eta ikustaraztea izango da, hala nola, arlo sozial, politiko, ekonomiko, kultural edota artistikoan. Horretarako, desberdintasun horiek sustatzeaz arduratzen diren mekanismo sozialak identifikatzea beharrezkoa izango da (de Miguel, 2003).

Horren bidean, Rex-ek (1985) babestutako karakterizazioarekin bat egin eta desberdintasun horiei ikuspegi teorikoa eskaintzearen alde egin beharko da De Miguel-ren (2012) arabera. Horrela, konfliktu guztiei teoria eta kontzeptu zehatzak lotzeko aukera egongo da. Horren aurrean, feminismoaren erantzuna beharrezkoa da Millet-en (1995) aburuz. Hura ulertzeko, alor femenino eta maskulinoa aztertu eta horri ikuspegi teorikoa eskaini ez ezik, herrialdearen egoera oinarri moduan hartzea beharrezkoa izango da. Zapalkuntza hori antzinetatik dator, sistema eta antolaketa sozial ezberdinetatik pasatuz (Cobo, 1995; Widgor, 2018). Dena den, feminismoaren baitan egondako olatu ezberdinekin, horiei aurre egiteko aukera egon da:

Teoria eta gizarte-mugimendu gisa, zailtasunez beteriko bide luzea egin du emakumeen aurkako indarkeria arazo sozial eta politiko gisa berrdefinitzera iritsi arte. Feminismoaren zeregin erabakigarrien artean, jendartearen finkatuta dauden legitimazio-modu anitzak eta kontrajarriak aurkitzea eta desartikulatzea izango dira (De Miguel, 2005, 232 or.).

Hurrengo taulan orain arte bizi izandako olatu feministak ikus daitezke:

1. Taula

Feminismoaren Olatuak Historian Zehar

GARAIA	URTEA	AZALPENA
Aurrekariak	XV-XVI. mendeak	Arlo sozialean agertutako injustizia sozial eta desorekak salatzen hasi ziren. Christine de Pizán-ek <i>La Cité des Dames</i> liburua idatzi zuen 1405. urtean, gizonen maskulinitatea zalantzan jarritz. Oraindik, feminismoaren kontzeptua agertu gabe zegoen ^a .
Lehen olatua	XVIII-XIX. mendeko lehen erdia.	Mundu mailako erreferenteen artean, François Poulain de la Barre dago, <i>De la igualdad de los sexos</i> obra argitaratu zuena ^b . Gainera, Gizonen Eskubideen zerrenda argitaratu zen eta Olympia de Gouges-ek emakumeetara moldatu zuen ^d .
Bigarren olatua	XIX. mendeko bigarren erditik XX. mendeko lehen hereneraino	Bozkatzeko eskubidea aitortzeaz gain, gizonentzako sortutako Eskubide zerrenda emakumeetara estrapolatzea eta onartzea lortu zen ^e . Harira, Mill-ek feminismoaren kontzeptualizazioa ahalbidetu zuen ^a .
Hirugarren olatua	XX. mendeko bigarren herenetik XXI. mendeko hasierara arte	Urrats garrantzitsuena Simone de Beauvoir-ek eman zuen <i>El segundo sexo</i> liburuarekin. Bertan emakumeak, sortu baino, bihurtzen direla zabaldu zuen ^f . Horrez gain, Patriarkatua eta Konstrukto Soziala bezalako terminoak babestu zituen ^a .
Laugarren olatua	Gaur egun	Feminismoa globalizatu da, edozein pertsona kontsidera daiteke feminista eta horrek, aniztasuna eragiten du ^g . Momentu honetan, feminismoa eta antikapitalismoa eskutik joan beharraren ideia agerian geratzen ari da ^h .

Oharra: ^a Aguilar-Barriga (2020). ^b León (2010). ^d Varela (2018). ^e Miyares (1999). ^f Cáceres (2021). ^g Cobo (2019). ^h Benería (2006).

Olatuetan ikusi den moduan, garaiaren arabera, gizonak izan dira mugimendu honetan publikoki, indar gehien hartu dutenak, jendartearen, haiek zirelako ahotsa zuten bakarrak. Egun, gizonek interesa galdu eta feminismoa emakumeek bereganatu dute (Cazes, 2004), hasieran emakume pribilegiotsuak mugimenduaren buru izanik eta egun, klase baxuko emakumeak mugimendua bereganatuz (Blanco, 2022). Horren harira, *Gizarte Hezkuntzaren aldetik eta hirugarren sektorearen begirunez, feminismoaren eta interseksionalitatearen aldeko*

posizionamendua hartzea beharrezkoa izango da, interbentzio sozialak alde horretatik planteatuz eta bide batez, honen garrantzia Gizarte Hezitzaileen Kode Deontologikoan txertatuz (Ytarte et al., 2019).

3. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Genero sozializazioaren bitartez hedatutako rola eragindako jokabideak ulertu ahal izateko, honako hipotesi hauek planteatzen dira:

1. Hipotesia: Genero sozializazioaren eraginez, emakumeak harreman sexu emozionaletan familiar, emozional eta pribatuago jokatzen dute, gizonekin alderatuz.
2. Hipotesia: Emakume gazteak sexistak diren jarrerak gehiago onartzen dituzte, gizonekin alderatuz.

Bestetik, hurrengo hipotesiak burutu dira emakumeen autokontzeptu maila identifikatzeko eta pairatutako sexismoarekin harremana izan dezakeen neurtzeko:

3. Hipotesia: Emakume gazteak autokontzeptu fisiko baxuagoa dute, adin berdintsua duten gizonekin alderatuz.
4. Hipotesia: Geroz eta sexismo gehiago pairatu, orduan eta autokontzeptu fisiko baxuagoa izatearekin harremanduta dago.

Azkenik, jendarteak duen feminismoaren inguruko ulermen maila identifikatzeko hurrengo hipotesia burutu egin da:

5. Hipotesia: Emakume izatearekin batera, feminismoaren garrantzia hobeto ulertzen da.

4. METODOLOGIA

4.1. Ikerketaren diseinua

Ikerketa ez-esperimentaleko diseinu deskribatzaile eta korrelaziozkoa izan da, hain zuzen ere, zeharkakoa.

4.2. Partaideak

Ikerketa hau 235 pertsonak bete dute. Sexuan fokua jarritz, %76.2a (n=176) emakumea da eta %23.8a (n=56) gizona. Alabaina, %16.6a (n=39) ez da sexu biologiko horrekin identifikatzen, aldiz %83.4a (n=196) bai. Adin-tarteari dagokionean, %50.2a (n=118) 18 eta 28 urte-artean dago, %8.5a (n=20) 29 eta 39 artean eta %41.3a (n=97) 40 eta 50 artean. Harira, gehiengoak ez ditu seme-alabarik: %64.7ak (n=152), %35.3ak (n=83), bai. Orientazio

sexualari dagokionean, %83a (n=195) heterosexuala da, %13.6a (n=32) bisexuala, %3a (n=7) homosexuala eta bukatzeko, %0.4ak (n=1) bestelako orientazio sexuala dauka. Bestalde, laginaren %70.6a (n=166), azkenengo 12 hilabeteetan, iraupen luzeko (12 hil baino gehiago) harreman sexuafektibo batean murgilduta egon da; %29.4a, aldiz, (n=69) ez. Prozedentziari dagokionean, %94a (n=221) Mendebaldeko Europakoa da, %4.7a (n=11) Ekialdeko Europakoa eta bukatzeko, %1.3a (n=3) Amerikakoa. Kulturari dagokionez, %94.1a (n=221) kultura Okzidentala du, %0.4a (n=1) Oriental eta %5.5a (n=13) ez da Okzidentalarekin, Orientalarekin, Islamdarrarekin edo Afrikarrarekin identifikatzen. Ikasketa mailan fokua jarritz, %5.1a (n=12) D.B.H.a duela adierazi du, %6.5a (n=15) erdi mailako gradua, %25.1a (n=59) goi mailako gradua, %50.6a unibertsitateko ikasketak gauzatu ditu, %10.6a (n=25) masterra egin du, %0.4a (n=1) doktoratua dago eta %1.7a (n=4) formakuntza homologatuak gauzatu ditu.

4.3. Tresnak

Ikerketa hau aurrera eramateko, lehenik eta behin, datu soziodemografikoak ezagutu ahal izateko galdetegi bat luzatu da. Honen baitan, sexu biologikoa eta horrekiko identifikazioa; adin-tartea; parte-hartzaileek seme-alabarik al dituzten edo ez; orientazio sexuala; azkenaldian epe-luzeko harreman sexuafektiborik izan duten ala ez; jaiotze lurraldea; kultura; ikasketa maila; momentuan lan egiten duten edo ez; lanaldi mota; solbentzia ekonomikoa duten ala ez; diru-sarrera pertsonalak; hezkuntza-aisialdian emandako denbora eta bukatzeko, etxeko lanak egiten duten denboraren inguruko galderak luzatu dira.

Bestalde, hainbat eskala balidatu oinarri moduan hartu dira: *Neurtzeko tresnak eraikitze oinarriko printzipioak* [Principios básicos para la construcción de instrumentos de medición]-en (Barbero-García, 2006, 1-12 diapositibak) agertutako jarraipenak oinarri moduan hartu eta *ad hoc* moduko galdetegia sortu da. Sorkuntza beharrezkoa izan da, momentu honetan ez baita genero sozializazioaren aspektu ezberdinak neurtzen duen eskala balidaturik aurkitu. Horren bidean, 49 item bateratu dira, 5 azpi-ataletan banatuta.

Lehenik eta behin, galdetegian *Autokontzeptu fisiko, sozial eta emozionala neurtuz* atala dago. Hau aurrera eraman ahal izateko, *AF5* galdetegia (Garcia eta Musitu 1999) erabili da. Eskala honen barnean, autokontzeptu akademiko edo laborala, soziala, emozionala, familiarra eta fisikoa neurtzen dira, alabaina, fisikoko azpieskala osoa baino ez da erabili 0.77-ko fidagarritasunarekin (Alpha de Cronbach). Gainera, arlo emozionaleko 2 item eta beste biren artean, beste bat sortu da, hau da, totalen 3 item erabili dira (“gauza batzuen beldur naiz”), bestetik, sozialeko beste 2 (“Pertsona adeitsua naizela uste dut” edo “persona

ezezagunekin hitz egiteko zailtasunak ditut”) erabili dira eta bat alderantziz kodetuta zegoenez, alderantzizko kodea sortu behar izan da.

Bigarren azpi-atala *Emakume eta gizonak harreman sexuafektiboetan: balore sozial, pertsonal, familiarrak eta erraztasun sozialak* da. Honen baitan, 13 item daude, hainbat eskala balidatuetatik ateratakoak. Lehenik eta behin, *El cuestionario de actitudes hacia la igualdad de géneros (CAIG)* (Spence eta Helmreich, 1972) dago, zeina sei faktoretan banatuta dagoen: orientazio sexuala, sinbolismo erlijioso, bikoteen antolaketa eta baloreak, arlo pribatua, arlo publikoa eta sexualitate eta askatasun pertsonala. Azpi-atal honetan, bikoteen antolaketa eta baloreak eta arlo pribatua kategorietako item-ak aukeratu dira, baina ez dira azpi-eskala osoak erabili. Lehenengo faktoretik bi item eta bigarrenetik, item bat aukeratu da (“Emakumeek ezin izango dituzte inoiz gizon gozoak, otzanak eta etxeak baloratu”). Bigarrenik, *Escala de Interacciones Sociales del Cuestionario de Relaciones Hombre-Mujer (MFR)* (Spence et al., 1980) erabili da. Kasu honetan ere, eskala bi azpi-eskaletan banatuta dago, alde batetik, adierazkortasuneko azpi-eskala eta bestetik, elkarrekintza sozialeko azpi-eskala. Kasu honetan, adierazkortasuneko item bat aukeratu da (“Gustatzen zaidan gizon mota gogorra eta maskulinoa da”). Atal honekin jarraitzeko, *Multicultural Masculinity Ideology Scale (MMIS)* (Doss eta Hopkins, 1998) ere erabili da. Honen baitan, 35tik 5 item aukeratu dira, 2 item-en kodea alderantziz zegoelarik eta ingelesetik gaztelerara itzuli behar izan delarik (“Gizon batek ez luke beti bere familia babestu behar” edo “Balorea ez litzateke mutil batentzako beharrezkoa izan behar”); harira, honek ere bi azpi-eskala ditu: garaipenak eta hipermaskulinitate itxura; lehenengotik, 3 eta bigarrenetik, 2 item aukeratu dira. Azpi-atal honekin bukatzeko, *Ansiedad de Interacción Social* eskala dago (*SIAS*) (Mattick eta Clarke, 1998). Honetan 20 item daude, alabaina, 4 item baino ez dira aukeratu (“Emakumeek erraztasunak dituzte beren sentimenduak adierazteko” edo “Gizonak urduri jartzen dira beren sentimenduei buruz hitz egiterakoan”). Dena den, ez dira zehatz mehatz eskalatik hartu, honetara moldatzeko aldaketak beharrezkoak izan baitira.

Hirugarren azpi-atala *Emakumeen egoera ekonomikoa: produkzio- eta ugalketa-lana eta genero rola* da. Honen baitan, 11 item erabili dira. Lehenik eta behin, *El cuestionario de actitudes hacia la igualdad de géneros (CAIG)* (Spence eta Helmreich, 1972) erabili da. Aurretik aipatutako faktoreetatik, kasu honetan, 3 faktoreetako item solteak erabili dira, alor pribatu, publiko eta balore kultural eta bikotekoei erreferentzia eginez. Honekin batera, 8 item aukeratu dira (“Medikuen, abokatuen, enpresarien eta abarren belaunaldien familietan, hobe

da gizonetzko semeak karrera profesional bat ikastea, emakumeek baino arrakastarako aukera gehiago izango baitute” edo “Normala da, ebakuntza kirurgiko larri baten aurrean, gizonetzko zirujau bat nahiago izatea”). Gainera, *Multicultural Masculinity Ideology Scale (MMIS)* (Doss eta Hopkins, 1998) ere erabilia izan da, item bakarra erabiliz, itzulpena egin ostean (“Gizon bat dirutsua ez bada ere, horren itxura eman beharko luke”), garaipenak azpi-eskalatik eratorritakoa. Bukatzeko, asmatutako 2 item ere erabili dira (“Hobe da emakumeek zaintzarekin lotutako karrerak ikastea; izan ere, litekeena da etorkizunean familia, lagunak eta abar zaindu behar izatea”).

Laugarrenik, *Genero biolentzia gazteetan: sexismo onbera* azpi-eskala dago. Honetan, *Inventario de Sexismo Ambivalente para Adolescentes ISA-A* (Glick eta Fiske, 1996) eskala erabilia izan da. 22 item ditu, lehenengo 11-k sexismo latza eta bigarren 11-k sexismo onberari (.74-ko fidagarritasuna) erreferentzia eginez. Kasu honetan, bigarren taldea aukeratu izan da, item guztiak erabiliz (“Emakumeak berdintasunaren aitzakiarekin, gizonek baino botere gehiago lortu nahi dituzte” edo “Mutil-lagun on batek gogoko dituen gauzak sakrifikatzeko prest egon behar du bere neska-laguna laket izateko”).

Bukatzeko, *Mugimendu feminista gaur egun* landu da. Honetan, *Instrumento de Medida sobre Conocimiento y Actitudes hacia el Feminismo (IMCAF)* (García-Jimenez et al., 2016) erabili da. Honek 17 item ditu eta horietatik 5 aukeratu dira (“Gaur egun feminismoa ez dela beharrezkoa uste dut”). Gainera, *Escala de desarrollo de identidad feminista (FIDS)* (Bargad eta Hyde, 1991) ere erabili da. Kasu honetan, 2 item aukeratu dira, originalak 39 zituelarik (“Nolabait, egiten ditudan ia jarduera guztiak egiteko motibatzen nauena berdintasunezko mundu bat lortzea da.”). Bukatzeko, asmatutako item bat erabili da (“Feminista kontsideratzen zara?”) eta horri lotutako galdera ireki bat ere erabili da (“Feminista kontsideratzen bazara, zergatik?”)

